

EGIN DEZAGUN GIZONA

Eta Jainkoak esan zun beste bein: «Egin dezagun gizona geure antz eta irudiko, itxasoko arraiei, eguratseko egaztiei, abereei, lur osoari, ta lurrean narrasten diranei buru izan dakien».

**Ta Jainkoak gizona bere irudiko egin zun,
bere antz irudiko sortu zun.
Ar eta eme irazan zitun.**

**Eta Jainkoak onetsi zitun, eta esan zien:
«Kopurutu ta ugaldu zaitezte;
lurra bete ta menderatu ezazute.**

**Itxasoko arrai guztien gaiñ,
eta zeruko egazti guztien gaiñ
eta lurrean igitzen diran bizidun
guztien gaiñ nagusi izan zaitezte».**

Eta Jainkoak esan zien: «Begira: lur osoan azia dakarten belar guztiak, eta azi ta arnaria dakazten gugatz guztiak damazkizuet, janaritzat ditzazuten. Eta lurreko iize guztiei, zeruko egazti guztiei ta lurrean narrasten diran bizidun guztiei lurreko soropil guztia damaiet janaritzat». Ta alan izan zan. Eta Jainkoak beralk egiñiko guztiak ikusi zitun; ta on-onak ziran.